

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk eskainiko ditugun bizikletak, bizikleta elektrikoak izango dira. Hala ere, ez dira bizikleta elektriko arruntak izango, eguzki panelak guk instalatuta izango dituztelako. Horrek esan nahi du, bizikleta argitan egonda, argi-izpiak xurgatuz, kargatzeko ahalmena izango duela, kargadore bat erabili gabe. Bestalde, gurpilak mugimenduan daudenean energia sortu ahal izango dute baita ere.

Laguntza handiko produktua izan daitekeela pentsatzen dugu, hainbat erabilera ezberdin izan ahal dituelako. Noski, bizikleta bat denez, garraio-bide bezala erabil daiteke, bizikleta arrunt bat bezala. Baina, baita ere, energia xurgatzeko eta elektrizitatean bihurtzeko gaitasuna duenez, bateria moduko bezala erabil daiteke, etxeko eguneroko elektrizitate kontsumoa ordezkatzeko esate baterako.



Bizikletak sortutako energia elektriko beste eginkizunetan gure egunerokotasunean erabili ahal izateko, bizikletaren bateria ateratzeko ahalmena izango du, hau da, bateria portable moduko bat. Horrek ere, esan nahi du bateriak independenteki salduko ditugula gure eskutik, inongo hornitzailearen baldintzapenarekin.

Laburbilduz, mekanismo hau erabiltzekotan, energia kontsumoa murriztea lortuko genuke, energia modu garbian eta gainera, jarduera fisikoaren bidez lortuko genukeelako. Ez esaterik dago, energia ez-berriztagarrien kontsumoaren aurkako neurria izan daitekeela eta autonomoki energia elektriko lortzeko gai izango ginen, beste enpresa batzuen menpekotasun gabe (terceros).